

2019ko ASTE NAGUSIA**EKIMEN ERRALDOIA**

Aste Nagusia amaituta eta uda amaitzear dagoenean, iritsi da urtero-urtero egiten badira ere haien eduki sozialagatik eta solidarioagatik beti deigarriak diren jarduera batzuen zikloa ixteko unea.

Oraingoan Iniciativa Gigante – Ekimen Erraldoiaz ari gara, eta zazpigarren urtez jarraian gauzatu da Aste Nagusiaren inguruko egunetan eta Aste Nagusian bertan.

Itzurun Konpartsak Super Amararen laguntzaz antolatzen duen ekintza solidarioa da, eta aurten Beroa (Gipuzkoako Harrera Familien Elkarte) Elkartearen alde egin da. Beroa Elkartearen helburuak dira: Harrerako adingabearen eskubideen defentsa, Harrera familiei laguntza eta beren eskubideen defentsa eta Familia Harreraren legezko figuraren sustapena.

Guztira 751 kamiseta saldu dira Super Amararen lau supermerkatuetan eta Erraldoi eta Burhandien Aste Nagusiko Antiguoko irteeran, Iñigo Garcíak (Garvi) sortutako konpartsaren irudiarekin. Salmenta oso ondo joan da eta Beroa elkarteari laguntzeko 5.066,50 € lortu dira.

Zoriondu egin nahi dugu Konpartsa urtero gauzatzen duen ekimen honengatik, eta bide beretik jarraitzeko eskatzen diogu. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiogu Super Amarari kamisetak banatzen eta saltzen laguntzeagatik, eta Beroa elkarteari, berriz, arrakastarik handiena opa diogu bere helburu solidarioa lortzeko bide horretan.

Eskerrik asko, Super Amarari ekimen solidario honetan gure konpartsari emandako laguntzagatik.